

ARABAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Administrazio Xedapenak

Foru Aginduak

TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA
LURRALDE OREKAREN SAILA

3818

250/2010 FORU AGINDUA, maiatzaren 28koa, Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuak uztailearen 8ko 303/2008 Foru Aginduaren bidez ezarritako baldintzak onartu zituen. Foru agindu horrek Lezako udal planeamenduaren arau subsidiarioen bigarren aldaketaren espediente onartu zuen behin betiko.

I.- AURREKARIAK

Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuaren uztailearen 8ko 303/2008ko Foru Aginduaren bidez behin betiko onartu zen Lezako udal planeamenduaren arau subsidiarioen bigarren aldaketaren espediente, zeinek 3 poligonoko 226 landa lurzatian kiroletarako sistema orokor bat sortzea eta bide eta eraikin lerrokaduretan hiru aldaketa egitea zituen helburu.

Bestalde, aipatu foru agindua betearaztea espedientearen bertan aipatzen ziren aldaketen barneratzeak baldintzatzen zuen.

Lezako Udalak, 2010eko maiatzaren 6an, espedientearen testu bateratua igorri zuen foru aldundira, betearaztekoa zela adieraz zezan.

II.- OINARRIAK

Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, aipatutako foru aginduak ezarritako aldaketak bete direla egiaztatu da.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hauxe

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Betetzat ematea Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuaren uztailearen 8ko 303/2008ko Foru Aginduan ezarritako baldintzak. Foru agindu horren bidez behin betiko onartu zen Lezako udal planeamenduaren arau subsidiarioen bigarren aldaketaren espediente, zeinek 3 poligonoko 226 landa lurzatian kiroletarako sistema orokor bat sortzea eta bide eta eraikin lerrokaduretan hiru aldaketa egitea zituen helburu.

Bigarrena.- Foru agindu hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena.- Foru agindu honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, berorren aurka ondoko edozein errekurtsio jarri ahal izango da, baita interesdunek egoki deritzoten beste edozein neurri abiarazi ere (errekurtsioa behin betiko onartutako aldaketei buruz baino ezin izango da aurkeztu):

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko auzi horietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Aukeran, eta administrazioarekiko auzi errekurtsioaren aurretik, berraztertze errekurtsioa, ebazpena eman zuen organoari. Horretarako, hilabete izango da, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko maiatzaren 28a.- Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko Diputatuak, IÑAKI NAFARRATE KORTABARRIA.

Disposiciones Administrativas

Órdenes Forales

DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL
Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

3818

ORDEN FORAL 250/2010, de 28 de mayo, de aceptación del cumplimiento de las condiciones impuestas en la Orden Foral nº 303/2008, de 8 de julio, del Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, por la que se aprobó definitivamente el expediente de segunda modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Leza.

I.- ANTECEDENTES

Mediante Orden Foral número 303/2008, de 8 de julio, del Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, se aprobó definitivamente el expediente de segunda modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Leza, referido a la creación del sistema general deportivo en la parcela rústica 226 polígono 3 y otras tres alteraciones adicionales de alineaciones viarias o de edificación.

La ejecutoriedad de la citada Orden Foral, no obstante, quedó condicionada a la introducción en el expediente de las modificaciones que se señalaban en la misma.

Con fecha 6 de mayo de 2010, el Ayuntamiento de Leza ha remitido a la Diputación el texto refundido del expediente a fin de que sea declarada la ejecutoriedad del mismo.

II.- FUNDAMENTOS

Analizada la documentación aportada se comprueba que ha dado cumplimiento a las modificaciones impuestas en la Orden Foral mencionada.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Dar por cumplidas las condiciones impuestas en la Orden Foral número 303/2008, de 8 de julio, del Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, por la que se aprobó definitivamente el expediente de segunda modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Leza, referido a la creación del sistema general deportivo en la parcela rústica 226 polígono 3 y otras tres alteraciones adicionales de alineaciones viarias o de edificación.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente; respecto de las determinaciones que supusieran modificación en relación con las aprobadas definitivamente.

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente, y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 28 de mayo de 2010.- El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, IÑAKI NAFARRATE KORTABARRIA.